

Erljioak, gatazkak eta garapena aztertuko ditu Hegoak jardunaldietan

Topaketak Bilboko Juan Larrea aretoan egingo dituzte hilaren 19tik 21era

Gorane Agirre / Bilbo

ERLJIOAK, Gatazkak eta Gara-pena izenburuean egingo ditu Hegoak bere aurtengo Jardunaldia. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Nazioarteko Ekonomia eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua da Hegoa. Hilaren 19tik 21era bitartean Bilboko Juan Larrea aretoan egingo diren topaketok Bilbo Bizkaia Kutzaren babesa daukate. Besteak beste, integrismo erlijiosoak eragindako gatazkak aztertuko dira, hala nola Aljerian sarraski izugarrien atzean ustez dagoena.

Gaiaren zergatiak ez zuen azalpen gehiegirik eman atzoko aurkezpenean Alfonso Duboisek, Hegoa elkarte arduradunak. Hala ere, zenbait zehaztasun eman zituen: «Aljeriako gatazkaren hurbiltasuna eta gizagabetasuna azkenik nazioarteko elkarlearen eta, bereziki, Europako Batasunaren erantzukizun konpartitua zalantzan jartzen hasi da».


Duboisiek esan zuenez, «gai horiekiko kezka uneko egoera baino urrunago joan behar du, berau larria izan arren. Are gehiago, momentuko proposamenek gatazken erro sakonei buruzko hausnarketak ahazten dute eta, ondorioz, adabaki hutsak baino ez dira; egoerak, ordea, neurri sakonagoak eta epe luzeak eskatzen ditu», gehitu zuen.

Jardunaldi horiekin gertakariak kokatzen diren oinarritzko erreferentziak ezagutarazi eta egun abian dauden prozesu historikoez prentsarazi nahi dute antolatzaileek. Izan ere, beren hitzetan, «azken hamarkada honetan munduak eraldaketa sakonak bizi izan ditu. Askorentzat, erreferentzia globalizazioa da, baina sarri asko eduki eta inguru zehatzik gabe. Globalizazioa errealitate garrantzitsua bada ere, ez du berak bakarrik azaltzen egungo egoeraren konplexutasuna azaltzen. Are gehiago, osotasuna estandarizazio eta homogeneitatearekin parekatzen duten zenbait ikuskeraren aurrean, fenomeno lokalistikak eta bereziak indartzen ari dira».

Hiru egunetan hiru gai • Lehenengo egunean, Erljioak eta beren paper geopolitikoa gaiaz ariko dira Jose M^a Mardones soziologo eta teologoa eta Bichara Khader, Lovaina Unibertsitateko Arabiar Mundu Garaikideari buruzko Ikasketa Zentroko zuzendaria.

Modernitatearen ezaugarria zen sekularizazio prozesuaren kontra, erlijioak egun gero eta protagonismo handiagoa eskuratzen doazela nabarmendu zuen Duboisek. Hala ere, berauen paperak dimentsio ugari dituela zehaztu zuen: politikan duen eraginetik hasi eta herri sektoreetan sustraitzen

Erljioen paper berria aztertzea, egungo konplexutasuna aintzat hartzen duen garapenaz eztabaidatzea eta gatazka islamikoa zehaztasun gehiagoraz ulertzea dira Hegoa Institutuaren V. Jardunaldien helburu nagusiak. Topaketok Bilbon egingo dituzte hilaren 19tik 21era bitartean.



Alfonso Dubois, Hegoa kolektiboko burua.

ARTXIBOKOA

diren adierazpen integristetari-
no. Ildo horretan, «erlijiotik
egindako hausnarketak garape-
na eratze osagaietako bat
izan behar du» bere ustez.

Bigarren eguneko saioan,
ostera, Garapen berri baterako
giza baloreak gaia jorratuko
dute Francisco Fernandezek,
Bartzelonako Pompeu Fabra
Unibertsitateko Filosofia Politi-
koko katedradunak, eta Jose M^a
Castillo teologoa.

Garapena helburu ekonomi-
koak lortzea baino zerbait
gehiago dela esaten den arren,
jarduera ekonomikoaren hege-
monia defendatzen duten para-
digmak gaitzitzen biztanleriari
asko kostatzen zaiola uste du
Hegoako buruak. «Herriek bizi-
modu duinak lortzeko eta giza-
banakoen arteko ezberdintasun-
ak murrizteko asmoan gara-
pen ereduak porrot egin dutela
onartzea ez da nahikoa, lehen
urrats bat bada ere. Bigarrena
da kultur eta erlijio erreferen-
tziak, baloreak, gizateriaren his-
toria markatu duten gai nagusi-
ak, garapenaren eztabaidan
sartzea», azaldu zuen.

Azken egunean, Islamismoa-
ren konplexutasuna gaur egun
gaiaz mintzatuko dira Begoña
Valle, Ortega y Gasset Unibers-
tate Institutuko ikerlaria, eta
Solaiman El Attar, Madrilgo
Ikasketa Islamiko Egiptoarren
Institutuko zuzendaria.

Gai horri dagokionez, Duboi-
sek ezinbestekotzat jo zuen
herrialde islamistetan elkarre-
kin bizi eta borrokatzen diren
korronteen aniztasuna eza-
gutu, «islamismoaren eta inte-
grismo eta biolentziaren identi-
fikazio faltsua hausteko». X

Intsumiso baten kontrako zigorra salatu dute Basaurin

Hilabete baino
gehiago egin du
espetxetik irten gabe

Efe / Basauri

BASAURIKO kartzelan preso
dauden intsumisoek Patxi
Arostegi Jimeno kidearen
egoera salatu dute. Patxi
Arostegi intsumisioa aben-
duaren 11z geroztik dago
preso Basauriko kartzelan,
eta besteei ez bezala, kartzel-
ako zuzendaritzak oraindik
ez dio 3. gradua eman, eta
ezin da espetxetik irten.
Intsumiso horrek 37 egun
egin ditu jadanik espetxetik
irten gabe. Arostegi 3. gra-
duari dagokion ziega batean
dago, espetxeetako zuzenda-
ritzak erregimen irekia ema-
teko zain, horrela gaua baka-
rrik igaro beharko bailuke
kartzelan. Intsumiso Presoen
Kolektiboak zuzendariari exi-
jitu dio berehala eman die-
zaiola Arostegiri 3. gradua, ez
baitu onartzen ematen ari
zaion tratua ezberdina.

Orain arte, Basaurin sar-
tzen zituzten intsumisoek lau
eta hamar egun bitartean
itxaron behar izaten zuten
espetxe erakundeek hiruga-
rren gradua onartu arte. X



USURBILGO UDALA

IRAGARKIA

USURBILGO "URDAIRA ORIKO BENTA BIDEA HOBEZTEKO PROIEKTUAK" ERASANDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN AURREKO AKTEI EKITEKO DEIALDIA.

Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 9ko 289 De-
kretuak (1998ko urtarrilaren 2ko 1 zk.-ko EHAA)
deklaratzen du Usurbilgo udalak nahitaezko des-
jabetza egiteko, "Urdaira Oriko Benta bidea hobe-
tzeko proiektua burutzeko beharrezkoak diren
ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu behar
dituela. Erabaki honek esan nahi du ondusun eta
eskubide horien balorazioaren kopurua ordaintzeak
edo gordailuan uzteak Legearen 52. artikuluko 6,
7 eta 8. zenbakietan aurreikusitako ondorioak
ekarriko dituela.

Ondorio horietako, honekin batera doan zerren-
dan agertzen diren ondusun eta eskubideen titu-
larrei dei egiten zaie, aipatutako egun eta orduan,
eta Usurbilgo Udaletxean bertaratu ondoren,
ondusun eta eskubideak hartu aurreko aktak egi-
teari ekin dakion, eta, hala badagokio, lurrak
formalki hartzeari ere bai. Doakienek hala eskatuta,

beharrezko bada lurrera bertara ere joan daitezke.

Eragindua eurak zein beren izenean iharduteko
behar bezala baimendutako beste ordezkar bat
bertaratu beharko dira egintza horretara. Ond-
usunaren titulartasuna egiaztatzen duten agiriak
(notario-eskrittura, eskritura pribatuak, Jabego
Erregistroaren egiaztagirak edo informazio-
oharrak, etab.) aurkeztu beharko dituzte bai eta
beren eskubideak egiaztatzen dituen beste edozein
agiri ere. Bidezko baderitze eta beren kontura,
peritoak eta notario bat ere eraman ahal izango
dituzte berekin batera.

Halaber, eta Nahitaezko Desjabetzari buruzko
Legearen Arautegia 56.2 atalean xedatu-
takoaren arabera, doakienek eta aipatutako zerren-
dan agertu ez diren gauzekiko edo eskubide eko-
nomikoen titularrak diren pertsonak, Aurreko Aktak
egiteko adierazitako egunerarte, bidezko deritzen
arrazoibide-idazkiak aurkeztu ahal izango dituzte,
Usurbilgo Udal bulegoetan, hartu beharreko on-
dasun eta eskubideen zerrenda egitean egin ahal
izan diren akatsak konpontzekotan soilik.

USURBIL, 1998KO URTARRILAREN 13A. ALKATEA

ERANSKINA

USURBILGO "URDAIRA ORIKO BENTA BIDEA HOBEZTEKO PROIEKTUAK" ERASANDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA ETA AURREKO AKTEI EKITEKO DATAK

LURZATIA	JABEA	HELBIDEA	MUGAK	AZALERA	DATA
1	Manuela Bidasoro Atorrastagasti	Igentea kalea 4 DONOSTIA	Iparrak, Hegoa eta Mendebaldeak: Orubearen gainontzekoa. Ekialdeak: L.J. Arizmendi eta Natalia M.A.	612,00 m ²	1998ko otsailaren 24ean, goizeko 10etan
2 A	L.J. Arizmendi Barnes eta Natalia Martinez Arroyo	Eguzkitza B. USURBIL	Iparrak, Hegoa eta Ekialdeak: Orubearen gainontzekoa. Mendebaldeak: Manuela Bidasoro.	436,00 m ²	1998ko otsailaren 24ean, goizeko 11etan
2 B	L.J. Arizmendi Barnes eta Natalia Martinez Arroyo	Eguzkitza B. USURBIL	Iparrak, Hegoa, Ekialdea eta Mendebaldeak: Orubearen gainontzekoa.	1.144,00 m ²	1998ko otsailaren 24ean, goizeko 11etan
2 C	L.J. Arizmendi Barnes eta Natalia Martinez Arroyo	Eguzkitza B. USURBIL	Iparrak eta Mendebaldeak: Orubearen gainontzekoa. Hegoa: Orubearen gainontzekoa eta A. Unsain. Ekialdeak: Itziar Bereciartua.	1.248,00 m ²	1998ko otsailaren 24ean, goizeko 11etan
3 A	Itziar Bereciartua Zubizarreta	Urruzmendi B. USURBIL	Iparrak eta Ekialdeak: Orubearen gainontzekoa. Mendebaldeak: L.J. Arizmendi eta Natalia Martinez Arroyo. Hegoa: Antonio Unsain.	556,00 m ²	1998ko otsailaren 25ean, goizeko 10etan
3 B	Itziar Bereciartua Zubizarreta	Urruzmendi B. USURBIL	Iparrak, Ekialdea eta Mendebaldeak: Orubearen gainontzekoa. Hegoa: Antonio Unsain eta M ^a Angeles Salsamendi.	1.210,00 m ²	1998ko urtarrilaren 25ean, goizeko 10etan
3 C	Itziar Bereciartua Zubizarreta	Urruzmendi B. USURBIL	Iparrak eta Mendebaldeak: Orubearen gainontzekoa. Hegoak: Orubearen gainon. eta M ^a Angeles Salsamendi. Ekialdeak: Francisco Azkonobieta.	208,00 m ²	1998ko otsailaren 25ean, goizeko 10etan
4	Francisco Azkonobieta Echeberría	Urdaira B. USURBIL	Iparrak, Hegoa eta Ekialdeak: Orubearen gainontzekoa. Mendebaldeak: Itziar Bereciartua.	364,00 m ²	1998ko otsailaren 25ean, goizeko 11etan
			GUZTIRA ESPROPATU BEHARREKO METRO KARRATUAK	5.778,00 m ²	